

# ar**o**aa

euskara indarberritzeko  
eta euskaldunok ahalduntzeko  
marko estrategikoa

## Udalerrietan AROA diseinatzeko gida



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**emun**

Euskara eta  
berrikuntza soziala

# AURKIBIDEA

## **Eskerrak ematea**

### **1. Sarrera: AROAren kokapena**

- **Arlo estrategikoa**
- **Arlo operatiboa**

### **2. Prozesua**

- **Aurrelanak**
- **Diagnostikoa**
- **Diseinua**
- **Jarraipena eta egitura**
- **Kronograma**

# ESKERRAK EMATEA

Hasi baino lehen, prozesu honetan parte hartu duten guztiei eman nahi dizkiegu eskerrak haien ekarpenengatik eta laguntzeko izan duten prestutasunagatik.

- Jokin Larrañaga (Arabako Foru Aldundia)
- Ainhoa Atxikallende (Alkarbide)
- Jon Alonso (Barakaldoko Udala)
- Arantza Etxebarria eta Ana Hernandez (Bizkaiako Foru Aldundia)
- Ane Olabbarri (Bilboko Udala)
- Alex Aisa (Donostiako Udala)
- Rakel Romero eta Itziar Lakarra (Gasteizko Udala)
- Joxean Amundarain eta Olatz Elustondo (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- Manex Agirre (Gorbeialdeko Kuadrilla)
- Maria Fernandez (Maruri-Jatabeko Udala)
- Iraide Iturri (Mungiako Udala)
- Aitziber Arnaiz (Oiartzungo Udala)
- Laura Martinez (Txorierriko Mankomunitatea)
- Goizane Arana eta Elixabet Urzelai (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea)
- Sonia Rodriguez (Abanto eta Zierbenako Udala)
- Edurne Otamendi (Donostiako Udala)
- Aintzane Lasa (Arrasateko Udala)
- Junkal Txurruka (Eibarko Udala)
- Ima Eguen (Zaldibarko Udala)
- Maite Etxaniz (Zarauzko Udala)
- Garikoitz Goikoetxea (Tolosako Udala)

# 1. SARRERA: AROAren kokapena

Eusko Jaurlaritzak datorren hamarkadan euskara indarberritzen jarraitzeko [AROA](#) marko estrategikoa onartu zuen 2024an. AROAren **helburu nagusia** da “gizarteak azken urteetan izan dituen aldaketei erantzun eta gaur egungo testuinguru eleaniztunean, euskal hiztun aktiboak eta ahaldunduak dituen komunitatea indartzea, gizarte ekitatibo eta justua eraikitzeko”. Orain arteko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) hamar urtean egon da indarrean, 2012-2022, eta plan horrek aurreikusten zuen bezala, 2022an plangintzaren ebaluazioa egin eta ESEP berritzeko batzorde-atal berezi bat jarri zen martxan Euskararen Aholku Batzordearen baitan.

2023an HPSn, AROAren arlorik estrategikoen definiziorako hausnarketa prozesu bat abiatu eta zirriborro bat sortu zen. Zirriborro hori, HAKOBArekin kontrastatu eta ekarpenak bildu ondoren, Euskararen Aholku Batzordearen ekarpenak txertatu eta behin betiko dokumentua sortu zen.

Eusko Jaurlaritzako Gobernu kontseilura 2024ko otsailean eraman zen. Horrekin batera, EAEko euskara teknikariak bildu eta lehentasunak zehaztu zituzten, ondoren HPSk lehentasunen azken proposamena egiteko.

AROAren marko estrategikoarekin batera tokiko administrazio guztientzako AROA plana egiteko metodologia plan eredu eta ekintza batera bat sortu da.

# ARLO ESTRATEGIKOA

**Gure testuinguru eleaniztunean, euskal hiztun aktiboak eta ahaldunduak dituen komunitatea indartzea, gizarte ekitatibo eta justua eraikitzeke helburuz.**

## NAHI ESTRATEGIKOA:

**Gure testuinguru eleaniztunean, euskal hiztun aktiboak eta ahaldunduak dituen komunitatea indartzea, gizarte ekitatibo eta justua eraikitzeke helburuz.**

- Aroan, **hiztun aktiboak** da modu aktiboan euskararen erabilera sustatzen duena. Hiztun aktiboak bere hizkuntzaren egoeraren kontzientzia dauka, hautu soziolinguistikoa egina dauka, ahalduntze prozesua egiten ari da, eta bere portaeretan ezaugarri hauek ditu: euskara lehenesten du edozein dela ere harremana edo egoera, euskaraz hitz egin dadin beharrezko diren baldintzak sortzen ditu (lehen hitza euskaraz, euskaraz egitera gonbidatu, ulerrizketarako jarrera izan...)
- Aroan, **hiztun ahaldundua** da erabilera-harreman asertibo eta enpatikoak sortzen dituena. Edozein dela ere gaitasun maila edo hizkuntza ohitura, erabilera bermatua izateko baldintzak sortzeko prozesu psikosoziala egina du edo egite bidean da.

## MISIOA:

Kultura soziolinguistiko berria eraikitzea eta zabaltzea. Gure gizarte osatzen duten eragile publiko zein pribatu guztientzako marko eta bide orri bat eskaintzea datorren hamarkadarako, euskal hiztunak sortu eta ahalduntzeko zein euskararen komunitatea sendotzeko, eta munduko hizkuntza-aniztasunaren baitan gizarte justuago, ekitatiboago eta inklusiboago eraikitzen laguntzeko. Aldian-aldian

ebalatu eta egokitua izanik, metodologia parte-hartzaile eta berritzailea baliatzea, gizarte eragileekin eta mugimendu sozialekin elkarlanean.

## IKUSPEGIA:

**2034. urtean gaude eta...**

- Euskararen transmisioa ziurtatuta dago.
- Euskal hiztun aktibo gehiago ditugu gizarte esparru guztietan.
- Ezagutzaren unibertsalizazioan aurrerapausoak eman dira.
- Euskaratik urrun zeuden herritarrak zein gurera iristen ari diren herritarrak euskarara hurbiltzen ari dira.
- Gizartean behar handienak dituzten herritarrei behar bezalako babes, laguntza eta erraztasunak ematen zaizkie, eta euskara haiena ere badela sentitzen dute.
- Euskaraz bizitzeko aukera zabalagoak daude; babesgune gehiago ditugu.
- Arnasguneen beheranzko joera eten egin da.
- Euskarak eta euskal kulturak prestigio handiagoa dute.
- Ingurune digitalean euskarazko edukien eskaintza eta kontsumoa hazi egin da

# ARLO OPERATIBOA

Atal hauetan banatuta dago arlo operatiborako markoa:

## ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Ardatz estrategikoek hizkuntza-politikaren helburuak zehazten dituzte, hemendik 2034ra arte lortu nahi den ikuspegia garatzeko. Ardatz estrategikoek estrategiaren eremu nagusiak deskribatzen dituzte, eta erronken definizioa inspiratzen dute.

## ERRONKAK


Erronkek lortu nahi diren lorpenak adierazten dituzte, eta epe ertainerako konpromiso-maila espezifiko bat adierazten dute. Erronkak "lortu" behar denari zuzenduta daude, eta ez "egin" behar denari.

## LAN-ILDOAK

Lan-ildoak ardatz estrategikoak xehatzen dituzten dimentsio tematikoak dira, eta erronkak gai zehatzen arabera antolatzen laguntzen dute.

## EKIMENAK


Jarduera-proiektuak edo programak definitzeko balio duten eragiketa edo ataza multzoak dira. Ekimenak, egoeraren eta erakundearen arabera garatuko dira, horretarako behar diren proiektuak edo programak definituz.



ARDATZ ESTRATEGIKOAK		
<b>GOBERNANTZA</b>		
<p><b>G.1.</b> Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.</p> <p><b>G.2.</b> Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin zein kulturekin bizikidetzan.</p> <p><b>G.3.</b> Euskararen indarberritzea munduko hizkuntza-aniztasunaren balioetan kokatu.</p> <p><b>G.4.</b> Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategia garatu.</p>		
<b>JARRERAK / MOTIBAZIOAK</b>	<b>EZAGUTZA / GAITASUNA</b>	<b>ERABILERA / ELKARRERAGINA</b>
<p><b>JM.1.</b> Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduz, hizkuntza-ohituretan eta portaeretan eragin.</p> <p><b>JM.2.</b> Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.</p>	<p><b>EG.1.</b> Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.</p> <p><b>EG.2.</b> Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.</p> <p><b>EG.3.</b> Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.</p> <p><b>EG.4.</b> Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasunari (gaitasun erlatiboari) berriaz erreparatu.</p>	<p><b>EE.1.</b> Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.</p>
<b>BERRIKUNTZA</b>		
<b>B.1.</b> Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu.		
KUDEAKETA-ARDATZ ESTRATEGIKOAK		
<b>IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA</b>	<b>KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA</b>	
<p><b>IS.1.</b> Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.</p>	<p><b>KH.1.</b> Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldea identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio-estrategia aplikatu.</p>	

## 2. PROZESUA

Herri mailako plan estrategikoa egiteko prozesua 4 urrats nagusitan banatzen dugu, hauek puntuak:



# ZE HARLERROTASUNA

Prozesu osoan zehar, kontuan hartu behar da **zeharlerrotasuna**. Aurrelanetatik hasita, udaleko hainbat arlo inplikatzeko lana egin behar da. Horrez gain, prozesuan eta emaitzan genero ikuspegia, parte hartzea, aniztasuna, ingurumena, hizkuntzen kudeaketa eta abar hartu behar dira aintzat. Hurrengo lerroetan, genero ikuspegia, parte hartzea eta hizkuntzen kudeaketaren inguruko ohar batzuk agertzen dira, batez ere, prozesuan zehar eragiten dutenak:



## GENERO IKUSPEGIAREN INTEGRAZIOA

- Gaia esplizitatu, kontuan hartu.
- Taldeen osieran genero aldagaia aintzat hartu.
- Komunikazio irizpideak: hizkera inklusiboa, komunikazio kanalak, xede taldeak...
- Datu desagregatuak erabili eta ez badaude, aurrera begira, datu desagregatuak jasotzeko plana egin.
- Datuen genero irakurketak egin eta erakundean zabaldu, berdintasuneko sailarekin elkarlanean.



## PARTE HARTZEAN KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- Parte hartzearen markoa zein izango den erabaki
- Parte hartzeko gonbidapenak nork nori bidaliko dizkion kontuan hartu, beste sail batzuekin elkarlanean
- Ahalik eta eragile gehien eta ahalik eta pertsona gehien parte hartzeko ordutegiak eta lekuak proposatu.
- Ondo kalkulatu behar da zenbat saio egingo diren eta zeinekin. Izan ere, saihestu behar da saio gehiegi sartzea, jendea bestela erre egin daitekeelako. Era berean, aurretik sortuta dauden taldeak aztertu eta baliatu behar dira. Azken finean, herritarrei bideak erraztu behar zaizkie.
- Saioen ostean, bidali behar dira saioren aktak (edo kronikak) parte hartzaile guztiei eta euren erantzunak jasotzeko epea ere aurreikusi behar da (arau orokorra da 15 egun, baina prozesuaren ezaugarrien arabera moldatu daiteke).



## HIZKUNTZEN KUDEAKETA

- Hizkuntza aniztasuna kudeatzeko modua(k) aurreikusi: galdetegian, parte hartze saioetan, ...
- Euskal hiztunak ez diren iritziak jasotzeko lana egin: adibidez, galdetegi berezitu baten bidez, euskal hiztun ez diren lantaldeak osatuz, ...
- Zaindu idazkera eta zaindu ahoz helarazten ditugun mezuak: argi, zehatz eta ahalik eta termino tekniko gutxien erabili.





# AURRELANAK

## FASE HONETAKO EKINTZAK



### PARTE HARTZE MARKOA:

Parte hartzearen inguruko markoa zehaztu behar du Udalak. Laburrean esanda, honakoak adostu behar dira udalarekin:

- Prozesuaren **helburua**, bertan zehaztuz zein den herritarren iritzien prozesuan sartuko den jarduketa eta horren inguruan eman daitezkeen iritzia mugatu edo baldintzatzen dituzten esparru tekniko, ekonomiko, juridiko eta politikoak.
- **Gutxienez** eztabaidarako **deitu behar direnen profila**.
- Parte hartze prozesuaren funtzionamenduaren arduraduna den **administrazio organoa**.
- Beharrezkotzat joko balitz, parte hartzeko prozesuko Jarraipen Batzordearen kide kopurua, horien ezaugarriak eta zereginak. Prozesuaren iraupen mugatuak edo bere ezaugarriek hala gomendatzen dutenean, batzordea sortzea atzeratu eta eraketaren erabakia organo kudeatzaileari esleitu ahalko zaio.
- Prozesuaren **faseen definizioa**.



### PROZESUAREN EGITURA:

Prozesuaren **egitura** ere antolatuko da, eta prozesuan talde bakoitzak egingo duen lana zehaztea.

- **Talde motorra / koordinazio taldea:** prozesuko urrats nagusietan parte hartuko du eta planifikazio estrategikoa egitea izango da bere funtzio nagusia. Kontrasterako organo nagusia izango da. Aurrera begira ere talde motorrak lanean jarraitzea aurreikusten dugu, hala badagokio.
- **Kontraste taldea:** Udalen arabera, baina proiektuko hainbat fasetan kontrastea egiteko taldea izango da.
- **Herritarrak eta sektoreak:** taldekako bilera desberdinak egingo dira prozesuaren bi momentutan bereziki eta gogoeta estrategikoa egitea izango da helburua. Honako sektoreak izan daitezke: *euskalgintza, hezkuntza eta familiak, bizilagun berriak, merkataritza-ostalaritza...*
- **Udaleko eragileak, teknikariak eta arduradun politikoak**  
Prozesuaren kontrastea egingo da haiekin eta diseinua bukatzean, eta beharra eta aukerak ikusiz gero, inplikazio handiagoa ere eskatzeko aukera zabalduko zaie, prozesuaren atal desberdinetan, esaterako.



### KOMUNIKAZIOA

Udalak komunikazioa antolatuko du: zer, nork, noiz eta nola helaraziko diren Aroa egiteko prozesuan sortu behar diren mezu nagusienak.

# DIAGNOSTIKOA

## FASE HONETAKO EKINTZAK



### DIAGNOSTIKOKO DATUAK BILDU

Fase honen helburua euskararen inguruko diagnostikoa egitea da. Horretarako, iturri ofizialetik datuak jaso (EAS da tresnarik garrantzitsuena; gainera, HPSk aukera ematen du udalerrri baten gaineko datuak eskatu eta eskuratzeko).

- Bilakaera demolinguistikoa adierazten duten datuak: ezagutza, erabilera (kale erabilera eta etxeetako erabilera) eta jarrerari buruzko datuak.
- Bilakaera demografikoa adierazten duten datuak.



### AURREKO PLANAREN BALORAZIOA:

Udalak aurreko planaren balorazioa egitea eta ondoren, gogoeta estrategikoa egiteko talde motorrarekin konpartitu eta osatzea.

\*Gomendatzen dugu Udaleko beste **edozein sail prozesuan inplikatu** nahi izanez gero, momentu egokia izan daitekeela honakoa. Hala nola, *Berdintasun arloa, Immigrazio arloa, Kirola, Arlo sozioekonomikoa eta enplegua...* Euskararen ikuspegiak gain, plan berria bestelako ikuspegiekin bustitzea interesgarria izan daitekeela uste dugu, hala zeharlerrotasuna landuz.



### GALDETEGIA:

**Herrira zabaltzeko** eta diagnostikoa osatze aldera, herritarren pertzepzioak jasotzeko galde-tegi labur bat zabal daiteke herritarren artean.



### ELKARRIZKETAK:

Diagnostikoko datuak osatze aldera, pertsona gako batzuekin elkarrizketak egin daitezke: adibidez, bilakaera sozioekonomikoa zein izan daitekeen jakiteko, tokian tokiko garapen agentziarekin egin daiteke elkarrizketa.



### DIAGNOSTIKOAREN KONTRASTE TALDE ERAGILEAN EDOTA HERRITARREKIN

Talde eragilearekin edota herritarrekin **lehen bilera batean** diagnostikoa konpartituko da eta haien ekarpenekin **AMIA osatu** egingo da.

- Hurrengo urratsak talde eragilean adostuko dira
- Komunikaziorako ardura batzuk ere eman ahal zaizkie talde eragilea osatzen duten kideei.



### KONTRASTE TALDEAREKIN DIAGNOSTIKOAREN INTERPRETAZIOA

Diagnostikoko datu ezberdinak landu eta horien interpretazio kolektiboa egiteko kontraste talde bat eratu daiteke eta harekin lan hau egin. Helburua da geroari buruzko irakurketak plazaratzea eta herritarrekin egingo den lehen saioko edukia prestatu, eragileak identifikatu,...

# DISEINUA

## FASE HONETAKO EKINTZAK



Diseinu fasea udal bakoitzak nahi eran egin dezake, ez dago derrigorrezko prozesurik. Modu parte hartzailean egitea da gure gomendioa.

Beheko taulan diseinu fasean zehaztu beharreko ekintzak zerrendatu ditugu, eta horiek aurrera eramateko proposamen batzuk zehaztu ditugu.

EKINTZAK	ZELAN? <sup>1</sup>
Nahi estrategikoa, misioa eta ikuspegia zehaztu	Eragileen saioa antolatuz
	Proiektuko talde eragilearen batzarra antolatuz
	Herritarrekin saio irekia antolatuz
Ildo estrategikoetako lehenetsunak aukeratu	Eragileen saioa antolatuz
	Proiektuko talde eragilearen <sup>2</sup> batzarra antolatuz
	Herritarrekin saio irekia antolatuz
	Arlokako eragileekin saioa(k) antolatuz
AROAko ekintzak diseinatu	Proiektuko talde eragilearen batzarra antolatuz
	Herritarrekin saio irekia antolatuz
AROAko ekintzak kontrastatu	Arduradun politiko eta teknikoekin batzarra antolatuz (kontrasterako berariaz taldea sortu daiteke)
	Arlokako eragileekin saioa(k) antolatuz
	Euskara Zerbitzuarekin zuzenean landuz

<sup>1</sup> Zelan honetan hainbat aukera agertzen dira. Kasu batzuetan, aukera horietatik bakarra aukeratu daiteke, edo bi edo guztiak. Horrez gain, aipatu behar da zelan horren barruan zehaztu ez arren, pausorik pauso sukalde lana beharrezkoa dela, saioetatik ateratako informazioak kokatu, antolatu, aberastu, hobetu eta abar.

<sup>2</sup> Talde eragilea hainbat modutakoa izan daiteke. Eragile hauek hartu dezakete parte talde horretan: Euskara Zerbitzua, udaleko beste teknikariak, udaleko arduradun politikoak, herritarrak eta eragile herritarren ordezkariak.

# JARRAIPENA ETA EGITURA

## FASE HONETAKO EKINTZAK



### HELBURUA:

Ondorioz, urrats honen helburua da planaren bermea izango den egitura eta jarraipen sistema egokia definitzea.

Beste tokiko erakunde batzuetako ereduak ezagutu eta herrira ondoen egokitzen dena aukeratzea proposatzen dugu.

- Talde motorra edo Euskara Batzordea
- Lantaldekako sistema edo praktika komunitateak (helburu zehatzak lantzeko)
- Euskararen Foroa
- (...)

Horrez gain, jarraipena nola egingo den aztertuko du Euskara Zerbitzuak, baliabideak eta funtzionamendua zer nolakoa izango den. Garrantzi berezia du, kasu honetan, zeharlerrotasuna bermatzea eta gobernantzan arduradun tekniko eta politikoak inplikatzeko.

# KRONOGRAMA

Hau kronogramaren proposamen bat da. Herririk herri asko aldatu daitezke denborak, asko aldatu daitezke fase bakoitzari eskaini beharrekoak. Hori dela eta, kronograma hau orientatiboa da, besterik ez.

Ohar batzuk:

- Aurrelanei zenbat eta denbora gehiago dedikatu, orduan eta denbora gutxiago erabili beharko da hurrengo faseetan.
- Diagnostikoari dagokion atalean, gauza batzuk Euskara Zerbitzuaren esku daude (diagnostikoko datuak batu, aurreko planaren balorazioa egin, galdetegia diseinatu) eta horiek arin samar egin daitezke, baina horretarako gorde beharko da zerbitzuaren barruan tamainako dedikazioa.
- Galdetegiari dagokionez, normalena da herritarren esku aste bi uztea. Hau da, galdetegia bidaltzen denetik, aste bi izatea herritarrek erantzuteko.
- Herritarrekin saioak egin behar badira (saio bakarra egin daiteke), komeni da saiotik saiora gutxienez aste biko epea uztea.
- Diseinu fasean, saio bi baino gehiago aurreikusten badira, epeak luzatu behar dira derrigorrez.

